



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

110. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Apirila



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenarako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Gipuzkoako Foru Aldundiak 3,3 milioi euro bideratuko ditu landa-garapeneko laguntzetara FEADERen laguntzarekin

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentuak bi deialdi aurkeztu ditu lehen mailako sektorearekin lotuta: lehenengoa, mendi eremuan eta muga natural nabarmeneko beste eremu batzuetan dauden nekazaritza-ustiaketetara bideratutakoa, eta bigarrena, ingurumen-nekazaritza, klima, nekazaritza ekologikoari lotutakoa.

Laguntza hauen aurrekontuak 3,3 milioi euroko inbertsioa eragiten dute eta 2015-2020 Euskadiko Landa Garapenerako Programan (LGP) jasota daude; Landa Garapeneko Europako Nekazaritza Funtzaren (FEADER) bidez ere konfinantza daitezke % 75 arte.

- **Mendi-eremuetarako eta muga natural adierazgarriak dituzten beste eremu batzuetarako laguntzak.** Mendi-eremuetan edo muga natural adierazgarriak dituzten beste eremu batzuetan nekazaritza-ekoizpenak dituen muga ondorioz nekazariari sarrera-galerak eta kostu gehigarriak osorik edo zati batean konpentsatzera bideratuta dago neurria. Neurri horrek bioaniztasuna berrezarri, zaindu eta hobetzen lagunduko du, baita balio natural handiko nekazaritza-sistemak eta paisaien egoera ere, eta gure nekazaritzarako lurra eta haren mendeko paisaia eta ekosistemak mantentzen eta hobetzen lagunduko du.
- **Ingurumen-nekazaritza eta klimaren aldeko laguntzak, eta nekazaritza ekologikoaren laguntzak.** Beren borondatez nekazaritza-ustiaketetan nekazaritza-ingurumen eta klima arloko konpromisoak hartzen dituzten nekazariak konpentsatzeko bideratutako laguntzen multzoa. Honako hauek izan behar dute ustiaketen helburuak: Paisaia natural eta nekazaritza-paisaia mantentzea, hobetzea eta dibertsifikatzea bultzatzea; animalien ongizatea eta ingurumena errespetatuko eta bioaniztasuna ahalbidetuko duten sistema produktiboak eta jardunbideak bultzatzea; nekazaritza-bioaniztasuna mantentzea; nekazaritzaren ondoriozko amoniako eta negutegi-efektuko gasen igorpenak murriztea; uraren eta lurraren kudeaketa hobetzea eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta basozaintzako jardueretan sortutako azpi produktuak kudeatzea eta balioa ematea.

Bi deialdiak 2016ko maiatzaren 15ean amaituko dira, eta eskaerak Gipuzkoan dauden zazpi Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetako (ENB/OCA) edozeinetan aurkeztu beharko dira.

Informazio gehiago:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2016/04/11/c1602314.htm>

<http://www.nekagip.net/default.asp?idioma=eu>

<http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/r50->

[pdr2020/eu/contenidos/informacion/pdr2020_intro/eu_agripes/pdr2020_intro.html](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/r50-pdr2020/eu/contenidos/informacion/pdr2020_intro/eu_agripes/pdr2020_intro.html)



> **Aurkeztu da EHUko udako ikastaroen XXXV. edizioa**

EHUko Udako Ikastaroen Fundazioak udako ikastaroen XXXV. edizioa aurkeztu du. Horien bidez, eztabaidarako eta pentsamendu kritikorako espazioa eskaintzen da beti aldatzen ari den gizartean. Programan sartzen dira ikastaro, tailer, jardunaldi profesionaletako eskolak eta kongresuak, baita zenbait ziklo ere.

Edizio honetan, Udako Ikastaroek bat egingo dute Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren ospakizunarekin. Hala, eztabaida eta analisirako espazioa eskainiko dute, bizikidetzaren, elkar ulertzearen, giza eskubideen, aniztasunaren, iraunkortasunaren eta ongizatearen inguruan.

Informazio gehiago:

<https://www.uik.eus/eu/2016ko-edizioa/2016ko-egitaraua>



KOHESIO-POLITIKA

> Europako Garapen Sozialaren Indizeak eskualde mailan desberdintasunak erakusten ditu osasun-arretan, etxebizitzaren kostuan eta goi-mailako hezkuntzarako sarbidean

Batzordeak Eskualdeko Garapen Sozialaren Indizea aurkeztu du. Indize horren helburua Europako 272 eskualdeen garapen soziala neurtzea da, garapen ekonomikoaren neurri tradizionalekin konbinatuta. Indizeak 0tik 100era arteko eskalan puntuatzen du indizearen osagaiak neurtzeko sartutako 50 adierazle bakoitzean izandako emaitza absolutua. Era berean, antzeko emaitza ekonomikoak dituzten eskualdeen indarguneak eta ahulguneak islatzen ditu.

2015ean argitaratutako emaitzen arabera, adierazlearen hamabi osagaik EBren Estatu kideen barruan zein haien artean aldaketa adierazgarriak adierazten dituzte, esaterako, osasun-arretarako sarbidea, etxebizitzaren kalitatea eta kostua, segurtasun pertsonala, goi-mailako hezkuntzarako sarbidea eta ingurumen-kutsadura.

Indizea Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren, Social Progress Imperative erakundearen eta Orkestra, Lehiakortasunaren Euskal Institutuaren arteko lankidetzaren emaitza da. Mundu mailako Garapen Sozialaren Indizearen testuinguru orokorrean oinarrituta dago, baina EBra egokitu da, batez ere Eurostateko datuetatik ateratako adierazleekin.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/mapapps/social_progress/spi.html



> Oztopo juridiko, administratibo eta linguistikoak dira mugako eskualdeetako pertsonek dituzten oztopo nagusiak

Mugako eskualdeetako pertsonek dituzten oztopoak aztertzeko egindako kontsulta publiko baten emaitzak argitaratu ditu Batzordeak. Inkesta horretan lortutako emaitzen arabera, bost oztopo nagusi identifikatu dituzte:

- Oztopo juridiko eta administratiboak (kualifikazioen aitortzen ez izatea eta zerga-sistemetan, pentsioetan eta gizarte-segurantzaren izandako aldeak);
- oztopo linguistikoak;
- Sarbide fisiko zaila (azpiegituren eta garraio publikoen sistema integratuen gabezia);
- Mugaz gaindiko arazoaren gainean administrazio publikoen arteko lankidetzarik ez izatea; eta
- desberdintasun ekonomikoak (desberdintasunak laneko merkatuan eta soldatetan, eta horrek fluxu asimetrikoak eragiten ditu).

Inkesta 2015eko irailaren eta abenduaren artean egin da, eta bertan, EB barruko mugako eskualde guztiek parte hartu ahal izan dute, baita EBko herrialdeen eta AELC/EEE herrialdeen arteko mugako eremuek ere. Guztira, 623 erantzun jaso dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/consultation/overcoming-obstacles-border-regions/results/report_reg-16-006_en.pdf



> Ekintzailetasunari laguntzeko erakunde eta ekintzaileentzako mugaz gaindiko topaketa egin dute Hendaian

Apirilaren 27an, Bihartean elkarteak, Hendaiaiko Udalak eta Baionako Merkataritza Ganberak antolatuta, mugaz gaindiko lurraldean ekintzailetasunari laguntzeko erakunde eta ekintzaileen arteko topaketa egin zuten.

Ekitaldian Iparraldean eta Euskadin enpresak sortzearen berezitasunak landu dituzte, eta ekintzaileak izan ohi dituen oztopo ohikoenak azaldu dituzte.

Informazio gehiago:

<http://www.bayonne.cci.fr/Parcours-du-createur/NOVEDAD-Quieres-crear-tu-empresa-Conferencia-Encuentro-transfronterizo-el-27-de-abril-en-Hendaia.html>



> 110 enpresak hartu dute parte Ocean Living Lab mugaz gaindiko elkartearen bileran

Martxoaren amaieran, Hendaian Ocean Living Lab elkarteak beste bilera bat egin du. Bidasoa activa eta Agglomération Sud Pays Basque elkarteek sustatutako mugaz gaindiko programa da Ocean Living Lab eta haren asmoa da irristatzearen, ekintzako kirolen, itsas kirolen eta kirol nautikoen sektorean Europako erreferentzia-zentro izatea.

Elkarteak berak emandako datuen arabera, irristatzearen sektore industrialak 2,5 milioi euro baino gehiago mugitzen ditu Zarautz eta Hossegor arteko eremu industrialean. Mugaz gaindiko lurraldean sektorearen aurre-industrializazio eta ko-kontzepziorako gaitasunak indartzeko sortu da elkarteak.

Bileran, erakunde sustatzaileez gain, Zarautz eta Hossegor arteko eremu ekonomikoko 110 enpresarik eta ekintzailek hartu dute parte, baita lanbide heziketako zentro eta unibertsitateek ere.

Eragile horiek arduratuko dira prototipoa egiteaz eta produktuak testatzeaz, eta produktu-idea berriak bilatuko dituzte enpresa-proiektuak bizkortzeko ekimenak martxan jartzeko.

Informazio gehiago:

<http://www.ocean-livinglab.eu/>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Eusko Jaurlaritzaren deialdi berria LHren eremuan mugikortasuna sustatzeko Erasmus+ programaren testuinguruan

Erasmus+ programaren testuinguruan, Lanbide Heziketako eremuan ikaskuntza-arrazoiengatik mugikortasun-ekintzak antolatzeko eta garatzeko laguntza ekonomikoen deialdia onartu du Eusko Jaurlaritzak. Deialdi horretarako bideratutako aurrekontua 500.000 eurokoa da.

Erasmus+ programaren barruan onartutako mugikortasun-proiektuak kofinantzatzea da deialdiaren helburua, 2016ko deialdian, ikaskuntza-arrazoiengatik ikasle eta langileen mugikortasunerako, betiere, 2016 eta 2017 urteen artean garatzen badira. Mugikortasun horien amaierako hartzaileak Euskadiko Lanbide Heziketan titulaturako edo matrikulaturako ikasleak edo Euskal Lanbide Heziketako irakasleak izango dira.

Eusko Jaurlaritzak onartutako konfinantzaketak 2016 eta 2017 urteetan garatuko diren mugikortasunei dagozkien proiektuetako aurrekontuaren zati proportzionala estaliko du.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/32080-500-000-euros-para-movilidad-ambito-dentro-del-marco-del-programa-erasmus-consejo-gobierno-2016>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Open Data Europa. Europako Batasuneko datu irekien ataria**

EBren datu irekien ataria Europar Batasuneko instituzio eta bestelako erakundeek egindako datu kopuru handirako sarbide-puntu bakarra da. Datuak erabili, berrerabili, lotu eta banatu egin daitezke doan, merkataritza-helburuekin edo gabe. Ataria Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoak kudeatzen du.

Informazio gehiago:

<https://open-data.europa.eu/es/data>

> **Eskualde eta Hiri Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren 2014ko urteko txostena (DGRegio, Europako Batzordea)**

Eskualde eta Hiri Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren (DGRegio) txostena, Kohesio Funtsen inguruan 2014 urtean garatutako jarduerari buruzkoa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/atwork/synthesis/aar/doc/regio_aar_2014.pdf



> ETE-etako garapen eta berrikuntzarako EGEFen ekarpenaren emaitzak 2007-2013 (Europako Batzordea)

Europako ETE-etako berrikuntza eta garapenerako EGEFek egiten duen ekarpena ebaluatzen den laneko dokumentuen multzoa. Zehazki, 50 programa operatibo aztertu dituzte, hau da, EGEFen 2007-2013 aldian programatutako baliabideen % 62 baino gehiago.

Egindako ebaluazioak finantzatutako politiken tresna nagusiak, haien izateko arrazoia eta eraginkortasuna ezarri ditu. Kofinantzatutako inbertsioen eragin ekonomikoa ere ebaluatu dute.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/en/policy/evaluations/ec/2007-2013/#1

> Finantzaketa gordetzeko esfortzu koordinatuak (Panorama aldizkaria, 56. Zk., DGRegio, Europako Batzordea)

Panorama aldizkariaren beste ale bat, Europako Batzordeak emandako laguntza mota ugari buruzko artikuluak biltzen dira, Estatu kideei Kohesio Politikaren finantzaketaren erabilera ahalik eta onena egiten laguntzeko eta exekuzio-arazoak lantzeko:

Era berean, "Mugako eskualdeetan oztopoak gainditzeko" inkestaren emaitzak aztertu dira, eta Europako hirietan bizi-kalitateari buruzko inkesta ere egin dute.

Europako Inbertsio eta Egitura Funtsen (EIE Funtsak) eta Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsaren (FEIE) arteko sinergieiei erreferentzia ere egiten diete.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/es/information/publications/panorama-magazine/2016/panorama-56-coordinated-efforts-to-safeguard-funding



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Ekoberrikuntzan I+G+b Europako proiektuak aurkezteko 2016ko ideia-lehiaketa (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila – IHOBE) (+ [info](#))**
- **Nazioarteko bokazioa duten euskal proiektu zinematografikoetarako aholkularitza (Zineuskadi eta Donostiako Zinemaldia) (+ [info](#))**
- **HERCULES III 2016 programa, Europar Batasuneko finantza-interesak babesteko eremuan jarduerak sustatzea. 2016ko deialdia (+ [info](#))**
- **INTERREG 2014-2020- Bigarren deialdia (+ [info](#))**
- **Teknologia Urdina: Itsas arroko ekonomietarako irtenbide berritzaileen transferentzia (EASME/EMFF/2016/1.2.1.3) (+ [info](#))**